

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Alexandriako andra argia

ALEXANDRIA, K.O. 370. Alexandriako Teon matematikari eta astronomo ospetsu eta prezia-tuaren alaba Hipatia jaio zen, erreferentzia batzuek jaiotza 355. urtean ipintzen badute ere. Emakumezkoek ukatu ohi zitzaizkien giro akademiko eta kultuan hezi zuen Teonek alaba. Historialari askoren esanetan, Hipatiak aita bera gainditu zuen matematika eta, bereziki, astronomia kontuetan. Tolomeo eta beste jakintsu batzuen lanak hobetu zituen, eta haren ekarpenak funtsezkoak izan ziren, 1.000 urte geroago, Galileoren lanean, eta hortaz astronomia modernoan.

Baina ez zen arlo horietara mugatu. Garai hartan ezagutzen ziren erlijioen historia landu zuen, baita oratoria, filosofoen pentsamendua eta hezkuntzaren printzipioak ere. Atenas eta Erroma bisitatu zituen, beti ere ikasteko eta irakasteko grina ase asmoz. Hipatiaren etxea mundu ezagun guztiko ikasleak biltzen zituen eskola bihurtu zen. Ziren-neko Silesio, Ptolomeidako apezpikua izan zen ikasleetakoa bat. Hipatiari buruz luze idatzi zuen eta berari esker dugu hezkuntzarako idatzi zituen liburuen berri. Hesikio Hebrearra ere ikasle izan zuen eta Hipatiaren jardueri buruz asko idatzi zuen. Beraren esanetan, magistratuek Hipatiarengana jotzen zuten administrazio aferen inguruan aholku eske. Politika arloan ere eragin handia



Alexandriako Hipatia,
Charles William
Mitchellen 1885eko
margolanean.

izan zuela idatzi zuen Hesikiok. Hipatiak meka-nika eta teknologia ere landu zituen; besteak beste, ura destilatzekeko aparatu bat, likidoen densitatea neurtzeko hidrometro graduatua, uraren maila neurtzeko tresna, astrolabioak eta hidroskopiaok asmatu zituen.

Baina horiek guztiek ez zioten bizia salbatzeko balio izan. Hipatia paganoa zen, eta paganismoarentzat garai gogor-rak ziren horiek. Hiria gero eta kristau-agoa zen, eta Hipatiaren egoera gero eta arriskutsuagoa. Haren eta gainerako filosofo neoplatonikoen aurka-ko jazarpena hasi zen, eta askok kristau-tasunera bihurtzeko erabakia hartu zuten. Hipatiaren lagun Orestes erro-matar prefektuak gauza bera egiteko aholkatu zion, baina emakumeak ez zien bere sinesmenei uko egin. 415. urteko martxoko egun batez, kristau talde batek Hipatia jipoiu, biluztu eta hirian barna arrastaka eraman zuten, Zesareo izeneko tenplura iritsi arte. Han, ebakiak egin zizkieten gorputz osoan, hil arte. Hipatia ez zen haientzat zientzialari baliotsua, akabatu beharre-ko sorgin arriskutsua baizik.

Aurki zinematik berpiztuko du emakume handi hura, Alejandro Amenabar zuzendaria-ren eta Rachel Weisz aktorearen eskutik. Dago-eneko hasi dira kanpoko eszenak Malta uhartean errodatzen. ■

ARRASTOAK

MAMUTen desagertzearen buruz asko eztabaidatu dute adituek azken hamarkadetan. Gehienetan gizakien eskua aipatu izan da arrazoiaren artean.

Bada, Espainiako Naturaren Zientzien Museo Nazionaleko ikertzaile talde batek egindako azterketaren arabera, gizakien ehiza azken kolpea izan zen mamutentzat. Baina ordurako ugaztun handi horien kopurua oso gutxitua zegoen.

Aipatutako ikerketak dioenez, arrazoi nagusia duela 21.000 urte hasi zen

berotze prozesua izan zen. Klima aldaketa sakonen ondorioz, mamutek gero eta habitata murriztagoak izan zituzten bizitzeko. Eta gizakia mamut ehizan hasi zenerako espeziea galzorian omen zegoen.



Mamutak ez omen zituen gizakiak hil, beroak baizik.